

Begiak eta belarriak zabalduz

ZORIONAK Glaukoma taldekoei. Freskotasunik galdu gabe, taldea heltzen ari da. *Vol.1* (Bonberenea Ekintzak, 2012) aurreko diskoan erakutsi zuten bideari jarraitzen diote, baina xehetasun eta ukitu berriak ipini dizkiete beren kantuei, eta lan borobila, aparta osatu dute. Soinua aurreko diskokoa baino indartsuagoa gauzatu dute.

Enbor beretik abiatuta, adar berri batzuk aurkitu dituzte. Hau da, reggaea eta rapa Glaukomaren ardatz nagusiak dira, baina haien bigarren diskoan jungle, drum & bass eta dubsteps doinu eta erritmoak ere landu dituzte. Bilakaera naturala izan da, modu natural batean bilatutakoa eta aurkitutakoa. Lehenengo diskoak izan zuen oihartzuna eta gero, taldekideak ez dira hor geratu, eta beren kantu berriak janzteko nahiago izan dute bide berriak arakatu, eta hori txalogarria da.

Aurreko diskoa egiteko erabili zuten diseinu bera baliatu dute bigarren lanean. Lehenengo diskoko azala beltz kolorekoa da, eta taldearen izena eta *Vol.1* izenburua besterik ez dira ageri. Bigarren diskoko azala, berriz, zuria da, eta taldearen izena eta *Vol.2* izenburua bakarrik irakur daitezke. Bi diskoetan zazpina kantu entzuten ahal dira. Beraz, azalean eta mamian, disko bat bestearen jarraipena dela nabarmena da.

Glaukoma garden ikusten uzten ez duen sintoma da. Taldekideen ustez, gizartea glaukomak jota dago, eta gizarteari eragiten dieten gaitzak azaleratzen dituzte kantuen bidez. Gizartea nola dagoen eta nora doan ikusita, kantuetan beren ikuspuntua jakinarazten dute. Hona hemen, beren hitzetatik hartutako esaldi batzuk: “Okar daude industriaren mapan koordenadak, haien helburu bakarra diruarena da”; “jarri eskela bat nere barruko min hauei”; “ganorak egin du bere buruaz beste”; “bitartean gizartea iparra galtzen, diru-jabe lotsagabeak kultura saltzen”; “bahituta dute herrien burujabetza, merkatua librea dela dioten momentutik”; “itzal beltzak erne dauden gau hauetan, lau hanketan nabil etsipenen paraje lauetan”.

Euskara, gaztelania eta ingelesa hitzetan nahastan jarraitzen dute, baina bigarren disko honetako hitz gehienak euskaraz idatzi dituzte. Lágrimas de



Vol.2
Glaukoma

Bonberenea Ekintzak,
2013

(CD eta Lp)

Sangre Bartzelonako taldearen *Lejos del silencio* kantua gaztelaniaz egin dute, eta talde horretako Microbio eta Still Ill kideekin grabatu dute. Halaber, Jon Altunak bere teklatuekin kantuak ederki apaindu ditu grabazio saioetan, eta Karlos Osinagak ere lan handia egin du kantuak grabatzeko, nahasteko eta masterizatzeke garaian.

Diskoaren grabazioan aritu diren gainerako musikariak Glaukoma taldekideak beraiek dira: Pablo Rubio (bateria), Asier Arandia (baxua), Jokin Albisua (gitarra), Iker Pando (gitarra eta ahotsak) eta Juantxo Arakama (ahotsa).

Taldekideek beren kantuak jotzen ederki pasatzen dutela, gozatu egiten dutela nabarmena da, eta hori kutsatu egiten dute, diskoa aparatuan ipini eta gorputzaren atalak mugitzen hasten baitzaizkigu, oharkabean. Doinuak trinkoak dira, eta kantuek intentsitate handia transmititzen dute, oso biziak eta indartsuak dira. Melodiek eta erritmoek harrapatu egiten gaituzte eta ezin dugu hortik ihes egin.

Pozik gaude Glaukomakoek irudimena, etorria eta gatza eta piperra izaten jarraitzen dutelako, eta batere beldurrik ez diotelako bide berriak lantzen hasteari. Gainera, kantu ederrak egiten jarraitzen dute. Kantu horiek, Euskal Herrian ez ezik, gero eta urrunago entzuten dituzte –Japonian jotzen aritu dira urriaren bukaeran eta azaroaren hasieran–. Ez da harritzekoa. ■

Joxi Ubeda

